

664/2020 EBAZPENA, DONOSTIALDEKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ZUZENDARI GERENTEARENA, ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ONARTZEN DUENA, ERRADIODIAGNOSTIKOKO ATALBURU LANPOSTUA (LARRIALDIETAKO ARLOA) LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Zuzendaritza Gerentzia honen azaroaren 26ko 2270/2019 Ebazpen bidez, deialdi publikoa iragarri zen, erakunde honetako Erradiodiagnostikoko atalburu lanpostua (Larrialdietako arloa) lehiaketa bidez betetzeko (2020ko otsailaren 18ko 33 EHAAn eta 2020ko otsailaren 12ko 37 BOEn argitaratua).

Bigarrena.- Aipatutako ebazpenaren 3. oinarriak zera ezartzen zuen: eskabideak aurkezteko epea hamabost egunekoa zela, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epe hori 2020ko martxoaren 10ean amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bakarra.- 2270/2019 Ebazpenaren 4. oinarriaren arabera, izena emateko epea amaitzen denean, zuzendaritza gerentziak ebazpen bidez, behin-behineko onartuen eta baztertuen zerrenda onartuko du, eta dagokionean, baztertu izanaren arrazoiak azalduko; era berean, erreklamazioak aurkezteko **hamar egun baliodun** izango dira, ebazpena Osakidetzako web orrian eta erakunde honetako intranetean argitaratzen den biharamunetik hasita.

Azaldutakoagatik, eta Osakidetzaren Estatutu Sozialetako 15.1.e artikulua zuzendari gerenteoi ematen dizkigun eskumenez baliatuta (azaroaren 11ko 255/97 Dekretua, azaroaren 14ko 219. EHAAn argitaratua), eta lehiaketaren oinarriak betetzeko, honakoa

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea, erakunde honetako Erradiodiagnostikoko atalburu lanpostua (Larrialdietako arloa) lehiaketa bidez betetzeko prozesuaren barruan. Zerrenda eranskinean jasota dago.

Bigarrena.- Ebazpen hau argitaratzea, Osakidetzako web orrian eta erakunde honetako intranetean.

Ebazpen honen kontra erreklamazioa jarri ahal da, Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerenteari zuzendua. Izapide hau egiteko hamar eguneko epea egongo da, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostian, 2020ko apirilaren 3an

ZUZENDARI GERENTEA
E. Pertsonaleko zuzendaria
(53/2019 Ebazpena, urtarrilaen 24koa)


DONOSTIALDEA ESI
OSI DONOSTIALDEA
PERTSONALEKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAL
Izpta.: **Esther LITAGO SOLA**

ERANSKINA

LANPOSTUA: Erradiodiagnostikoko
(Larrialdietako arloa)

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA

Onartuak: Gorka ARENAZA CHOPERENA

Baztertuak: Inor ez

Donostian, 2020ko apirilaren 3an

ZUZENDARI GERENTEA

E. Pertsonaleko zuzendaria

(53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa)

 **DONOSTIALDEA ESI**
OSI DONOSTIALDEA

PERTSONALEKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAL

Izpta.: **Esther LITAGO SOLA**

